

Nik, Jose Luis Martín González jaunak, UPV/EHUko
NAZIOARTEKO
BIKANTASUNI: Euskal, ziurtatzen du dokumentu hau
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONALSKO urtarriaren 10eko erabakieren
jotzenpea eskuordetuta.
Eloia; 2016.(e)ko03.01.....(a)renS.....

Jose Luis Martín Gómez, Secretario General de
UPV/EHU, certifica que el presente documento
concuerda literalmente con el original.
Por delegación de firma, en virtud de la Resolución d
19 de enero de 2013, la jefe de Negociado o
Secretaria General (Jut. 2).
Eloia,S..... de2016.... de

ERABAKIA, 2016ko OTSAILAREN 4koa, UPV/EHUko IDAZKARI NAGUSIARENA, 2015ean ERRETIROA HARTU ZUTEN LANGILEEI BORONDATEZKO ERRETIRO AURRERATURAKO ETA ERRETIRO PARTZAILERAKO ZEHAZTUTAKO PIZGARRIAK ORDAINZERO PROZEDURARI BURUZKOA

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2010eko uztailaren 15ean unibertsitateko administrazioak eta UPV/EHUn ordezkaritza duten sindikatuek akordioa sinatu zuten erretiroen xedez osatutako batzorde teknikoan, erretiroari eta erretiro egoerara iragateari lotutako bestelako neurriei buruzkoa. Akordio hori UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak berretsi zuen 2010eko urriaren 7ko bileran.

Besteak beste, akordioan jasota zegoen baldintza jakin batzuk beteta erretiro partziala edo borondatezko erretiro aurreratua hartzen zuten pertsonek pizgarria jasoko zutela.

Arau mailako eta aurrekontuen arlorako zehaztutako zenbait xedapen oinarri hartuta, 2012ko otsailaren 23ko bileran, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak erabaki zuen bertan behera uztea, aldi baterako, 2012 urterako, UPV/EHUko AZPkoie eta irakasle eta ikertzaileei borondatezko erretiroa hartzeagatik ordaindu beharreko pizgarriak. Ondoren, 2013ko martxoaren 21eko, 2013ko uztailaren 18ko eta 2014ko urtarriaren 30eko erabakien bidez, 2013 eta 2014ko ekitalditarako eta hurrengoetarako luzatu zen aipatutako pizgarriak bertan behera uzteko erabakia, ekitaldi horietarako aurrekontuetan horretarako esleipen espezifikorik zehazten ez zen bitartean.

2010eko uztailaren 15eko Akordioaren indarraldia 2014ko abenduaren 31n bukatu zen, eta akordioko bigarren xedapenean jasotakoari jarraituz, iraungi egin zen akordioaren edukia, ez baitzen posible izan data horretarako beste akordio bat lortzea.

Ondorioz, arlo hori UPV/EHUko langile funtzionarioen lan baldintzak arautzeko hitzarmenean eta lan kontratudun langileen hitzarmenean zehaztutakoaren menpe geratu zen; horiei jarraituz, baina, arlo horretan tratamendu desberdina zeukan langileen bi taldeek, eta, beraz, ez zen betetzen eragindako guztiei tratamendu harik eta parekoena eta berdinena emateko oinarrizko printzipioa. Edozelan ere, borondatezko erretiro aurreratukoa eta erretiro partzialerako pizgarrien ordainketa eten egin zen Gobernu Kontseiluak 2015eko otsailaren 5ean hartutako erabakiaren ondorioz.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2015eko apirilaren 22an emandako 181/2015 epaiak adierazi zuen UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko otsailaren 23an hartutako Erabakia, hau da, borondatezko erretiroa hartzeagatik ordaindu beharreko pizgarriak bertan behera uzteko

hartutako lehenengo erabakia, ez zela zuzenbidearen araberakoa eta deuseztatu egin zuen, eta aipamen beren-beregikoa dago adieraziz pizgarriak eta erretiro pentsioak bateraezinak izan daitezkeela, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak lehenengo artikuluan jasotakoa ikusita ("Régimen de incompatibilidades de pensiones indemnizatorias, prestaciones compensatorias y percepciones similares").

Horiek horrela, UPV/EHUk kontsulta egin zion Pertsonalaren Kostu eta Pentsio Publikoetarako Zuzendaritza Nagusiari eta Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari jakiteko erretiroari dagokion pizgarria eta sistema publikoan erretirorako ordaindutako pentsioa bateragarriak ziren.

2015eko abuztuaren 11n, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Bizkaiko Zuzendaritzaren erantzuna hartu genuen, eta honakoa dio hitzez hitz:

"En contestación a su escrito de fecha 27/07/2015 referencia de salida nº 201500005648 les informamos de lo siguiente:

Conforme al Art 1 del Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, las pensiones indemnizatorias, prestaciones compensatorias y cualquier otra percepción económica prevista con ocasión del cese en cualquier cargo, puesto o actividad en el sector público son incompatibles con la percepción de la pensión de jubilación o retiro por Derechos pasivos, o por cualquier régimen de Seguridad Social público y obligatorio.

A estos efectos se considera también actividad en el sector público la desarrollada por los miembros electivos de las Cortes Generales, de las Asambleas legislativas de las Comunidades Autónomas y de las Corporaciones Locales, por los altos cargos y restante personal de los órganos constitucionales y de todas las Administraciones Públicas, incluida la Administración de Justicia.

Posibilidad de opción:

Quienes cesen en los puestos que tengan prevista las pensiones indemnizatorias, prestaciones compensatorias y cualquier otra percepción económica tendrán un plazo de quince días hábiles, a contar desde que concurra la incompatibilidad para comunicar ante la Oficina de Conflictos de Intereses del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, en el caso del sector público estatal, o al órgano competente de la Administración autonómica o local, su opción entre la percepción de las mismas o la retribución de la actividad pública o privada que estén desempeñando o, en su caso, percepción de la pensión de jubilación o retiro.

La opción por la retribución pública o privada o por la pensión de jubilación o retiro, que se formalizará por escrito para su adecuada constancia, implica la renuncia a la pensiones indemnizatorias, prestaciones compensatorias y cualquier otra percepción económica prevista con ocasión del cese."

Bestalde, 2015eko irailaren 11n, Pertsonalaren Kostu eta Pentsio Publikoetarako Zuzendaritza Nagusiaren erantzuna hartu genuen, eta honakoa dio hitzez hitz:

"En relación con su consulta, que ha tenido entrada en este Centro directivo el pasado 30 de julio, sobre si las incompatibilidades previstas en el artículo 1 del Real Decreto-Ley-20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, relativo a pensiones indemnizatorias, prestaciones compensatorias y

percepciones similares, son aplicables a todos los funcionarios públicos o si, por el contrario, se limitan a los altos cargos, a efectos de determinar la compatibilidad o incompatibilidad entre la percepción de indemnizaciones por jubilación anticipada y la pensión de jubilación de los docentes universitarios, se significa lo siguiente:

En el apartado 11 de la Exposición de Motivos del Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, aun cuando no tiene carácter normativo, se dice que

"En primer lugar, se regula con carácter básico la incompatibilidad de pensiones indemnizatorias, prestaciones compensatorias y percepciones similares que perciben determinados ex altos cargos de carácter básico, con el objeto de que se perciba esta prestación sólo en el supuesto de que el ex alto cargo no realice ninguna otra actividad remunerada pública o privada.

La medida se aplicará a los altos cargos de todas las Administraciones públicas, incluyendo los que prestan sus servicios en el sector público, entendiendo también por tal la actividad desarrollada por los miembros electivos de las Cortes Generales, Asambleas legislativas autonómicas y de las Corporaciones locales, órganos constitucionales, incluidos el Poder Judicial y el Ministerio Fiscal".

Por otra parte, en las remisiones que se efectúan en la propia norma queda delimitada su aplicación a los altos cargos, como se deduce, por ejemplo, cuando se alude en el artículo 10.1 de la Ley 5/2006, de 10 de abril, de regulación de los conflictos de intereses de los miembros del Gobierno y de los altos cargos de la Administración General del Estado. Lo mismo se desprende de la redacción del propio párrafo segundo del referido precepto.

Por su parte, la Instrucción de 15 de octubre de 2012, conjunta de la Secretaría de Estado de Administraciones Públicas y de la Secretaría de Estado de Presupuestos y Gastos para la aplicación del Título 1 del Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, indica en su apartado Primero, relativo al ámbito de aplicación:

"Por lo que respecta a la Administración General del Estado, el régimen de incompatibilidad previsto en el artículo primero y en la Disposición transitoria segunda del Real Decreto-ley sólo se aplica a las pensiones indemnizatorias, prestaciones compensatorias y percepciones similares que correspondan con ocasión del cese en los puestos incluidos en el ámbito de aplicación de la Ley 5/2006, de 10 de abril de regulación de los conflictos de intereses de los miembros del Gobierno y de los altos cargos de la Administración General del Estado, sin perjuicio de las competencias que dicha normativa atribuye a la Oficina de Conflictos de Intereses en relación con el sector público estatal."

La cuestión ha sido finalmente resuelta en la Circular de 21 de enero de 2013 dictada por la Dirección General de la Función Pública; como consecuencia de una consulta relativa a la compatibilidad entre la indemnización por jubilación y pensión de jubilación del personal laboral fijo de la universidad, que interpreta que el régimen de incompatibilidad del referido artículo 7 del Real Decreto-ley 20/2012 se refiere exclusivamente a retribuciones percibidas por altos cargos con ocasión de su cese, precisando que no se aplica a gratificaciones extraordinarias por jubilación anticipada.

No obstante lo anterior, analizada la cuestión a la luz de la normativa reguladora del Régimen de Clases Pasivas y, en concreto, del régimen de incompatibilidades de la pensión de jubilación voluntaria a que está sujeto el personal funcionario incluido en el ámbito personal de cobertura de dicho régimen, a juicio de esta Subdirección General el percibo de la pensión es compatible

con el incentivo que, al amparo de la normativa de aplicación, reconocen las Universidades para fomentar la jubilación anticipada de su personal docente universitario."

Horiek ikusita, ulertu genuen Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak abuztuaren 11n emandako erantzunean iradokitzen zela uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak 1. artikuluan zehaztutakoa bete behar zela, eta hori ez zetorrela bat Pertsonalaren Kostu eta Pentsio Publikoetarako Zuzendaritza Nagusiaren erantzunarekin, eta, ondorioz, UPV/EHUk berriro ere bidali zion idatzia Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari argibideak eskatuz, baina institutuak ez du erantzunik eman gaia konpondu edo argitzeko.

Hirugarrena.- 2015eko irailaren 8an, UPV/EHUko idazkari nagusiak erabakia eman zuen zehazteko zenbait neurri EAEko Auzitegi Nagusiak emandako epaia betetzeko, eta, bestalde, adierazi zuen ulertzan zela ondriorik gabe geratzen zirela 2013ko martxoaren 21eko, 2013ko uztailaren 18ko eta 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, erabaki horiek deuseztatutako beste erabaki hura luzatzekoak zirelako.

Ondoren, idazkari nagusiak, 2015eko irailaren 28ko, urriaren 27ko eta azaroaren 30eko erabakien bidez, neurri horiek garatu zituen eta procedura arautu zuen 2012an, 2013an eta 2014an borondatezko erretiro aurreratua eta erretiro partziala hartu zuten langileei kalte ordainak ordaintzeko.

Bestalde, 2015eko azaroaren 5eko bileran, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen errebatzea 2015eko otsailaren 5eko erabakia, hitzarmenen arabera borondatezko erretiroa hartzeagatik UPV/EHUko AZPkoie eta irakasle eta ikertzaileei ordaindu beharreko pizgarriak aldi baterako bertan behera uzteko, otsaileko erabaki hori erabaki independentea izan arren, oinarrian beste erabakien kopia baino ez zegoelako, oinarri antzekoen babesean hartutakoa.

Laugarrena.- 2015ean, UPV/EHUk eta sindikatuek aurrera egin zuten lan bitzka aktiboaren amaierarako eta erretirorako neurriak bilduko zituen testua sinatzeko, hartara, batetik, 2010eko uztailaren 15eko akordio iraungian plantilla gaztetzeko eta belaunaldi aldaketarako ezarritako helburuak betetzeko, eta, bestetik, egungo aurrekontu legea eta aipatutako epaiak dakartzan ondorioak kontuan hartzeko, eta; horrez gain, berriro ere langile guztiei trataera orekatu eta berdina emateko.

Negoziazio prozesuaren ondorioz, 2015eko uztailaren 24an UPV/EHUko erretiroen eta erretiro egoerara iragateko bestelako neurrien arloko Batzorde Teknikoak gutxienekoen akordio bat lortu zuen. Akordio hori 2015eko urriaren 1ean berretsi zuen UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, eta bertan jasota zegoen negoziazio kolektiboak aurrera egingo zuela akordioan zehaztuta ez zeuden gaiak lantzeko, eta erretirorako kalte ordainak eta pizgarriak eta bateraezintasunak akordio horren menpe egongo zirela.

M

Azkenik, 2015eko azaroaren 27an, UPV/EHUK eta sindikatuek akordioa lortu zuten UPV/EHUKO langileen erretirorako kalte ordainak behin betiko arautzeko, eta akordio hori 2015eko abenduaren 17an berretsi zuen Gobernu Kontseiluak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Idazkari nagusiak badu eskumenik erabaki hau emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Erabakia dela bide (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko erabakia).

Bigarrena: 2015eko azaroaren 27an, UPV/EHUKO erretiroen eta erretiro egoerara iragaten bestelako neurrien arloko Batzorde Teknikoak akordioa lortu zuen, eta bertan jasota daude zenbait neurri borondatezko erretiro aurreraturako eta erretiro partzialerako kalte ordainak ordaintzeko, UPV/EHUKO irakasle-ikertzaileei zein administrazio eta zerbitzuetako langileei.

Oro har, testu horretan zehaztutako eskubide hori modu automatikoan aitortzen zaie interesdunei erretiroa gauzatzen duten unean bertan, bete beharreko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.

Hala ere, erabaki honetako aurrekarietan zehaztutako prozeduraren ondorioz, eta kontuan hartuta 2015eko azaroaren 27ko Akordiorako egindako analisia eta negoziazioa, eta akordio hori indarrean sartzeak dituen ondorioak, beharrezkoa da berariazko prozedura bat zehaztea 2015ean erretiroa hartu zuten langileentzat akordio horretan bildutako eskubideen eraginkortasuna lortze aldera, pertsona horiek une honetan ez baitaukate harreman zuzenik unibertsitatearekin.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- 2015ean borondatezko erretiro aurreratua edo erretiro partziala hartu zuten UPV/EHUKO langileek egoera horretara iragaten agatik kalte ordainik hartu nahi badute, eranskinoko eskaria bete beharko dute, eta AZPkoek gerenteari zuzendu, eta irakasle eta ikertzaileek Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari; eskaria egiteko, baina, UPV/EHUKO erretiroen Batzorde Teknikoak 2015eko azaroaren 27an hartutako Akordioan zehaztutako baldintzak bete behar dituzte.

Bere garaian kalte ordain horiek erreklamatzeako eskaera aurkeztu zuten langile erretiratuek ere erabaki honi atxikitako eskaera bete behar dute.


2010eko uztailaren 15eko edo 2015eko uztailaren 24ko akordioetan zehaztutako neurriren baten babesean egon ziren langileek, 2015ean borondatezko erretiro aurreratua edo erretiro partziala hartu zutenek, 2015eko azaroaren 27ko akordioak zehaztutako kalte ordaina hartu nahi badute, akordio horren xedapen iragankorrik aukera hori egiteko aurreikusten duen epean aurkeztu beharko dute eskaria.

Bigarrena.- Eskariak aurkezteko epea 2016ko otsailaren 12tik 26ra bitarteko da, biak barne.

Eskariak UPV/EHUren Erregistro Orokoretan aurkeztu behar dira, edo UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16ko erabakiaren bidez onartutako Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegian zehaztutako eraren batean.

Hirugarrena.- Erabaki honen eranskin gisa agertzen den eskaera betetzen ez dutenek kalte ordainari uko egiten diotela ulertuko da.

Laugarrena.- Erabakia hau UPV/EHUko Intraneten argitaratuko da.



ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra aukerako berrazterte errekursoa aurkez dakioke UPV/EHUko idazkari nagusiari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekursoa jar daiteke zuzenean Administrazio Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

2016ko otsailaren 4ko erabakiaren eranskina

2015 urtean erretiroa hartu zuten langileak

Anexo de la Resolución de 4 de febrero de 2016

Personal jubilado durante el año 2015

BORONDATEZKO ERRETIROA AURRERATUARI EDO ERRETIRO PARTZIALARI DAGOZKIEŃ KALTE ORDAINAK ORDAINTZEKO ESKABIDEA

SOLICITUD DE INDEMNIZACIÓN POR JUBILACIÓN VOLUNTARIA ANTICIPADA O JUBILACIÓN PARCIAL

**ESKATZAILEAREN DATUAK
DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE**

NAN / DNI	1. abizena / Apellido 1	2. abizena / Apellido 2	Izena / Nombre
Jakinarazpenak jasotzeko helbidea / Dirección para notificaciones		PK / CP	Herria / Población
Telefonoa / Teléfono	Jaiotze-data / Fecha de nacimiento		Erretiroaren data / Fecha de jubilación

DIRU SARRERA EGITEKO DATUAK DATOS PARA REALIZAR EL INGRESO

Tokia eta eguna:..... Lugar y fecha:.....

Sinadura / Firma

6

GERENTARI A LA GERENTE

1

IRAKASLE IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARI AL VICERRECTOR DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR

X batez markatu eskabidea nori zuzenduta dagoen / Señale con una X a quién se dirige la solicitud